

10/2023 UDALEKO OSOKO BILKURA

2023KO UZTAILAREN 18AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUTAKOAK:

ALKATEA

Egoitz Luisa Urkola (EH Bildu taldea)

ZINEGOTZIAK:

Ana Elozegi Artola (EH Bildu taldea)
Bakarne Garmendia Usabiaga (EH Bildu taldea)
Maialen Mujika Lizaso (EH Bildu taldea)
Amaia Urkola Arocena (EH Bildu taldea)
Agurtzane NuñezYarza (EAJ taldea)
Nuria Carbonell Miranda (EAJ taldea)
Aitzol Arocena Zufiria (EAJ taldea)
Jaime Peon Ormazabal (EAJ taldea)

IDAZKARIA:

Erika Sagarzazu Camino

EZ BERTARATUTAKOAK:

Aitzol Esnaola Zubeldia (EH Bildu taldea)
Mikel Olano Aburuza (EH Bildu taldea)

Anoetako Udaletxean, 2023ko uztailaren 18an, arratsaldeko 19:03tan, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko ohiko osoko bilkura antolatu da, Egoitz Luisa Urkola Alkatearen lehendakaritzapean, eta Erika Sagarzazu Camino aritu da Idazkari lanetan.

Alkatearen aginduz bilerari hasiera emanda, saio honetako gai zerrendako gaiak aztergai jarri zaizkie Udalbatzako kideei, eta gai horiei buruz ondorengo erabakiak hartu dituzte:

I. EBAZPENAK

1.- AZKEN BILKURARI DAGOKION AKTA ONESTEKO PROPOSAMENA.

2023ko ekainaren 26an egindako Osoko Bilkuraren akta aho batez onartu dute.

2.- UDAL LARRIALDIKO HARRERA-ZERBITZUA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA BEHIN-BEHINEAN ONESTEKO PROPOSAMENA.

Alkateak azaldu du azken urteetan Gizarte Zerbitzuetako Sailean alojamendurako beharra duten pertsona eta familien eskaerak jaso direla eta horrek agerian utzi duela mota horretako baliabide bat sortzeko eta arautzeko premia dagoela.



ANOETAKO
UDALA

Anoetako Udalak badu bere jabetzan etxebizitza bat, duela urte gutxi arte udaleko Gizarte Zerbitzuek kudeatutako alokairu sozialetarako erabili zena, eta orain larrialdietarako harrera-etxe izateko erabili nahi dena.

Proposatzen den ordenantza honetan, beraz, gizarte-larrialdiko egoerei erantzuteko harrera-etxebizitza arautu nahi da. Etxebizitza honetan alojamendua eskainiko zaie iraupen laburreko egonaldia behar duten pertsoneri eta bizikidetzak unitateei, gizarte-larrialdiko edo emergentziazko egoera batek eragindako alojamendugabeziari aurre egin ahal izateko.

Ondoren, Idazkari Kontu-hartzaileak uztailaren 12an egindako proposamen-txostenaren edukiaren berri eman du:

“ ...

EBAZPEN-PROPOSAMEN-TXOSTENA

LEHENENGOA. Udal larrialdiko harrera-zerbitzua arautzen duen Udal Ordenantza behin behinean onestea, espedientean agertzen den moduan.

BIGARRENA. Udal ordenantza hori jendaurrean jartzea eta interesdunei entzunaldia ematea. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki-oholean argitaratuko da, hogeita hamar egun balioduneko epean, erreklamazioak edo iradokizunak aurkezteko aukera izan dezaten, eta Udalbatzak ebatziko ditu.

Aldi berean, udal ordenantzaren testua Udalaren web atarian argitaratzea, eragindako herritarrei entzunaldia emateko eta beste pertsona edo erakunde batzuek egin ditzaketan ekarpen osagarriak jasotzeko.

HIRUGARRENA. Epe horretan erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin betiko onetsizat joko da, Udalbatzak berariazko erabakirik hartu beharrik gabe, eta ordenantza isilbidez behin betiko onartzeko erabakia, ordenantzaren testu osoarekin, udaletxeko iragarki-oholean eta probintziako aldizkari ofizialean argitaratuko da, jende guztiak horren berri izan dezan. Era berean, interesdunen eskura egongo da Udal honen egoitza elektronikoan.

LAUGARRENA. Estatuko Administrazioari eta autonomia-erkidegoko dagokion sailari bidaltzea ordenantzaren behin betiko onespeneren ziurtagiria.

Hala ere, Udalbatzak egoki deritzona erabakiko du.

...”.

Horiek horrela, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Udal larrialdiko harrera-zerbitzua arautzen duen Udal Ordenantza behin behinean onestea, espedientean agertzen den moduan.

BIGARRENA. Udal ordenantza hori jendaurrean jartzea eta interesdunei entzunaldia ematea. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki-oholean argitaratuko da, hogeita hamar egun balioduneko epean, erreklamazioak edo iradokizunak aurkezteko aukera izan dezaten, eta Udalbatzak ebatziko ditu.

Aldi berean, udal ordenantzaren testua Udalaren web atarian argitaratzea, eragindako herritarrei entzunaldia emateko eta beste pertsona edo erakunde batzuek egin ditzaketan ekarpen osagarriak jasotzeko.

HIRUGARRENA. Epe horretan erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin betiko onetsizat joko da, Udalbatzak berariazko erabakirik hartu beharrik gabe, eta ordenantza isilbidez behin betiko onartzeko erabakia, ordenantzaren testu osoarekin, udaletxeko iragarki-oholean eta probintziako aldizkari ofizialean argitaratuko da, jende guztiak horren berri izan dezan. Era berean, interesdunen eskura egongo da Udal honen egoitza elektronikoan.

LAUGARRENA. Estatuko Administrazioari eta autonomia-erkidegoko dagokion sailari bidaltzea ordenantzaren behin betiko onespeneraren ziurtagiria.

3.- ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERAK BURUTZEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETA BEHIN-BEHINEAN ONESTEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hitza eman dio Idazkariari eta horrek azaldu du egokitzat jotzen dela udalak lehen aldiz eskainiko duen larrialdiko harrera-zerbitzu berriaren kudeaketa eta tasaren erregulazioa bi gorputz arautzailetan bereiztea.

Hala, zerbitzuaren erabiltzaileek ordaindu beharreko tasa Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza arautzailean arautzea proposatzen da, argi eta garbi araututa ager dadin gainerako tasekin batera eta modu eraginkorragoan aldatu ahal izateko. Horrela, Udal larrialdiko harrera-zerbitzua arautzen duen ordenantza zerbitzuaren kudeaketaren alderdiren bat aldatu behar denean baino ez da aldatuko, zerbitzuak irauten duen bitartean denboran mantenduz.

Zehazki, Udal larrialdiko harrera-zerbitzua arautzen duen ordenantza-proposamenak ondorengoa jasotzen du bere V. Kapituluko 10. eta 11. artikuluetan:

“...

10. artikulua. Tasak.

Dagokion ordenantza fiskalean urtero jarritako tasa ordaindu beharko dute zerbitzu honen erabiltzaileek.

11. artikulua. Erabiltzaileen diru-ekarpena.

Hilero ordaindu beharreko tasa kalkulatzeko baremo ekonomikoa ondorengoa izango da:

- 15.000€ bitarteko diru-sarrerak
- 15.000€-tik gora eta 21.000€ arteko diru-sarrerak
- 21.000 -tik gora eta 25.000€-ra arteko diru-sarrerak
- 25.000€-tik gora eta 35.000€-ra arteko diru-sarrerak
- 35.000€-tik gorako diru-sarrerak

Salbuespen gisa, tasa ordaintzetik salbuetsita egongo dira ez ohiko arrazoiek hori gomendatzen dutenean, baina horretarako alde zuzeneko azterketa eta txosten soziala behar izango da eta dagokion organoak onartu egin beharko du.

...”.

Bestalde, Gizarte Langileak egindako proposamena ondorengoa da:

DIRU SARRERAK	TASA
< 15.000 €	150 €
15.000 € < 21.000 €	200 €
21.000 € < 25.000 €	250 €
25.000 € < 35.000 €	300 €
> 35.000 €	350 €

Horiek horrela, Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza arautzailearen I. eranskinean “N. Atala” sortzea proposatzen da, ondorengo edukiarekin:

“...

N. ATALA: UDAL LARRIALDIKO HARRERA- ZERBITZUA

N.- UDAL LARRIALDIKO HARRERA-ZERBITZUA

1.- ERABILTZAILIEN DIRU-EKARPENA

Erabiltzaileek hileroko ordaindu beharreko tasa eta hori kalkulatzeko baremo ekonomikoa ondorengoa izango da:

DIRU SARRERAK	TASA
< 15.000 €	150 €
15.000 € < 21.000 €	200 €
21.000 € < 25.000 €	250 €
25.000 € < 35.000 €	300 €
> 35.000 €	350 €

Salbuespen gisa, tasa ordaintzetik salbuetsita egongo dira ez ohiko arrazoiek hori gomendatzen dutenean, baina horretarako alde zuzeneko azterketa eta txosten soziala behar izango da eta dagokion organoak onartu egin beharko du.

2.- KOBRAZUA

Zerbitzua hilero kobratuko da, emandako zerbitzuaren arabera.

Ordenantza arautzailea aldatuko balitz, ordenantza fiskalaren aplikazioan eragina izanik, ordenantza fiskalaren aplikazioz egongo liratekeen aldaketak, interesdunei aldaketa horien jakinarazpena egin eta hurrengo hilean sartuko dira indarrean tasa berriak.

Bestalde, norbaitek ekarpenaren berrikuspen bat egiten badu bere egoera ekonomikoa aldatu delako edo Udalak egiten badu, honela kobratuko da: herritarrak aldaketa eskatzen duenean, eskatu eta hurrengo hilabetean sartuko dira indarrean tasa berriak; ekarpenaren aldaketa Udalak egindako berrikuspenaren ondorioz bada, interesatuari aldaketa horien jakinarazpena egin eta hurrengo hilean sartuko da indarrean tasa berria.

...”.

Ondoren, 2023ko uztailaren 13an egindako txostenen edukiaren berri eman da, bata Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza arautzailea aldatzeko prozedurari buruzkoa, eta bestea, tasaren kalkulu ekonomikoaren gainekoa.

Horiek horrela, Udalbatzak aho batez honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza arautzailearen aldaketa behin-behinean onartzea, espedientean eta Alkatetzaren proposamenean agertzen den testuarekin, zehazki:

“...

N. ATALA: UDAL LARRIALDIKO HARRERA- ZERBITZUA

N.- UDAL LARRIALDIKO HARRERA-ZERBITZUA

1.- ERABILTZAILEEN DIRU-EKARPENA

Erabiltzaileek hilero ordaindu beharreko tasa eta hori kalkulatzeko baremo ekonomikoa ondorengoa izango da:

<i>DIRU SARRERAK</i>	<i>TASA</i>
<i>< 15.000 €</i>	<i>150 €</i>
<i>15.000 € < 21.000 €</i>	<i>200 €</i>
<i>21.000 € < 25.000 €</i>	<i>250 €</i>
<i>25.000 € < 35.000 €</i>	<i>300 €</i>
<i>> 35.000 €</i>	<i>350 €</i>

Salbuespen gisa, tasa ordaintzetik salbuetsita egongo dira ez ohiko arrazoiek hori gomendatzen dutenean, baina horretarako aldez aurreko azterketa eta txosten soziala behar izango da eta dagokion organoak onartu egin beharko du.

2.- KOBARRANTZA

Zerbitzua hileroko kobratuko da, emandako zerbitzuaren arabera.

Ordenantza arautzailea aldatuko balitz, ordenantza fiskalaren aplikazioan eragina izanik, ordenantza fiskalaren aplikazioz egongo lirakeen aldaketak, interesdunei aldaketa horien jakinarazpena egin eta hurrengo hilean sartuko dira indarrean tasa berriak.

Bestalde, norbaitek ekarpenaren berrikuspen bat egiten badu bere egoera ekonomikoa aldatu delako edo Udalak egiten badu, honela kobratuko da: herritarrak aldaketa eskatzen duenean, eskatu eta hurrengo hilabeteetan sartuko dira indarrean tasa berriak; ekarpenaren aldaketa Udalak egindako berrikuspenaren ondorioz bada, interesatuari aldaketa horien jakinarazpena egin eta hurrengo hilean sartuko da indarrean tasa berria.

...”.

BIGARRENA. Aurreko erabakia jendaurrean jartzea, iragarki bidez. Iragarki hori udal-iragarki-taulan eta probintziako aldizkari ofizialean jarriko da hogeita hamar egun balioduneko epeaz, iragarki hori probintziako aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Halaber, interesdunen eskura jarri beharko da Udal honen egoitza elektronikoan.

HIRUGARRENA. Aipatutako epean espedienteari erreklamaziorik aurkezten ez bazaio, erabakia behin betikoa dela joko da, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

LAUGARRENA. Alkateari ahalmena ematea gai honekin zerikusia duten agiriak sinatzeko.

4.- KREDITU TRANSFERENTZI BIDEZKO KREDITU ALDAKETAREN 2023-KALD-000005-00 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEA ONESTEKO PROPOSAMENA.

Kultura saileko zerbitzuburuak bere 2023ko uztailaren 12ko txostenean esandakoaren arabera, “kultura saileko hainbat partidatan aldaketak egitea proposatzen dut, batzuetan dirua faltan baitago eta beste batzuetan soberan”. Horretarako, Kultur saileko zerbitzuburuak, espediente hau bideratzea eskatu du, 0000.227.334.10.04 *Kulturako tailerrak* aurrekontuko partidaren dauden 12.000 euro erabilita, eta 0000.226.330.00.06 *Jarduera soziokulturalak* partidara 4.343,81 euro bideratuz, eta gainontzekoa, hau da, 7.656,19 euro, 000.226.338.00.06 *Jaiak eta jaialdiak* partidara bideratuz.

Hortaz, Udal honen aurtengo aurrekontuko gastu partiden artean kreditu transferentziak egitea beharrezkotzat jotzen da, ondorengo proposamenaren arabera:

Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0000.227.334.10.04 2023	HAINBAT KONTRATU. KULTURA TAILERRAK	12.000,00	12.000,00	0,00
GUZTIRA		12.000,00	12.000,00	0,00

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0000.226.330.00.06 2023	JARDUERA SOZIOKULTURALAK. KULTURA	18.000,00	4.343,81	22.343,81
1 0000.226.338.00.06 2023	JARDUERA SOZIOKULTURALAK. JAIK	52.000,00	7.656,19	59.656,19
GUZTIRA		70.000,00	12.000,00	82.000,00

* Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira

Kontuan izanda Idazkari Kontu-hartzaileak 2023ko uztailaren 12an egindako txostenak, non, besteak beste, adierazten duen aztertutako espedienteak bete egiten duela legez ezarritakoa, eta toki entitate honek ez duela gairiditu 2023 ekitaldirako ezarritako erreferentziako defizita.

Kontuan izanda proposatutako kreditu transferentziek, jatorrian eta helburuan, hasierako kredituen 100eko 25etik gorako aldakuntza metatua dakartela eta, beraz, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak 29. artikularen 3. eta 4. apartatuetan jasotakoaren arabera, Udaltzari dagokiola haiek onstea.

Horiek horrela, legez ezarritako izapideak egin eta espedientearekin batera aurkeztutako agiriak aztertu ondoren, Udaltzarak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzia modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0000.227.334.10.04 2023	HAINBAT KONTRATU. KULTURA TAILERRAK	12.000,00	12.000,00	0,00
	GUZTIRA	12.000,00	12.000,00	0,00

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0000.226.330.00.06 2023	JARDUERA SOZIOKULTURALAK. KULTURA	18.000,00	4.343,81	22.343,81
1 0000.226.338.00.06 2023	JARDUERA SOZIOKULTURALAK. JAIK	52.000,00	7.656,19	59.656,19
	GUZTIRA	70.000,00	12.000,00	82.000,00

BIGARRENA. Kreditu transferentzien espedientea onartzeko, ez da jarraituko aurrekontua onartzeko aurreikusitako informazio, erreklamazio, errekurtsio eta publizitate araurik, ez baitago horretarako legezko betebeharririk.

5.- KREDITU TRANSFERENTZI BIDEZKO KREDITU ALDAKETAREN 2023-KALD-000006-00 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEA ONESTEKO PROPOSAMENA.

Kultura saileko zerbitzuburuak bere 2023ko uztailearen 12ko txostenetan adierazitako moduan, Diru-laguntzen plan estrategikoaren bi aldaketa egiteko proposamena aurkeztu du. Arrazoi ezberdinak direla medio, alde batetik, Kuku Elkarteari orain arte ematen ez zitzaion diru-laguntza emateko proposamena egiten du, 2.000,00 eurokoa, eta bestetik Almitza Segar Elkarteari 500,00 euroko diru-laguntza ematea proposatzen du. Aurrekontuan ez dago entitate horiei diru-laguntza emateko partidarik. Gauzak horrela, Kultur saileko zerbitzuburuak 0000.481.330.03.04 Diru-laguntza Anitz Dantza Taldea aurrekontu-partida proposatu du, hortik 2.500,00 euro ateratzeko, eta aipatutako elkarteentzako partida berriak sortzeko asmoarekin, Kuku Elkarteari 2.000,00 euro, eta Almitza Segar Elkarteari 500,00 euro.

Hortaz, Udal honen aurtengo aurrekontuko gastu partiden artean kreditu transferentziak egitea beharrezkotzat jotzen da, ondorengo proposamenaren arabera:

Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)



ANOETAKO
UDALA

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0000.481.330.03.04 2023	DIRULAGUNTZA. ANITZ DANTZA TALDEA	28.000,00	2.500,00	25.500,00
	GUZTIRA	28.000,00	2.500,00	25.500,00

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0000.481.330.07.00 2023	DIRULAGUNTZA. KUKU ELKARTEA	0,00	2.000,00	2.000,00
1 0000.481.330.08.00 2023	DIRULAGUNTZA. ALMITZA SEGA ELKARTEA	0,00	500,00	500,00
	GUZTIRA	0,00	2.500,00	2.500,00

* Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira

Kontuan izanda Idazkari Kontu-hartzaileak 2023ko uztailearen 12an egindako txostenak, non, besteak beste, adierazten duen aztertutako espedienteak bete egiten duela legez ezarritakoa, eta toki entitate honek ez duela gainditu 2023 ekitaldirako ezarritako erreferentziako defizita.

Kontuan izanda proposatutako kreditu transferentziek, jatorrian eta helburuan, hasierako kredituen 100eko 25etik gorako aldakuntza metatua dakartela eta, beraz, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak 29. artikulua 3. eta 4. apartatuetan jasotakoaren arabera, Udaltzari dagokiola haiek onestea.

Horiek horrela, legez ezarritako izapideak egin eta espedientearekin batera aurkeztutako agiriak aztertu ondoren, Udaltzari, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzia modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

Kreditu transferituko duten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0000.481.330.03.04 2023	DIRULAGUNTZA. ANITZ	28.000,00	2.500,00	25.500,00

	DANTZA TALDEA			
	GUZTIRA	28.000,00	2.500,00	25.500,00

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0000.481.330.07.00 2023	DIRULAGUNTZA. KUKU ELKARTEA	0,00	2.000,00	2.000,00
1 0000.481.330.08.00 2023	DIRULAGUNTZA. ALMITZA SEGA ELKARTEA	0,00	500,00	500,00
	GUZTIRA	0,00	2.500,00	2.500,00

* Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira

BIGARRENA. Kreditu transferentzien espedientea onartzeko, ez da jarraituko aurrekontua onartzeko aurreikusitako informazio, erreklamazio, errekurtsio eta publizitate araurik, ez baitago horretarako legezko betebeharririk.

6.- KREDITU TRANSFERENTZI BIDEZKO KREDITU ALDAKETAREN 2023-KALD-000007-00 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEA ONESTEKO PROPOSAMENA.

Anoetako Udaleko kiroldegian kokatzen den obradorean haurrentzat eman diren ikastaro eta bestelako ekintzek oso harrera ona izan dute haur eta gurasoengan. Ikastaro hauek elikadura osasuntsua, haurren ohitura onak, haurren ahalduntzea, haurrek ingurunearekin eta herriko ekoizleekin duten harremana eta aisi eredu parte hartzaile ez konpetitiboa bultzatzen dute. Horregatik, ikastaro hauek modu duinean eman daitezen eta prezioagatik inor kanpoan gera ez dadin bitarte ekonomiko eta materialak jartzeko konpromisoa hartu nahi du Udalak.

Horretarako, Udalak diru-laguntza esleitu nahi dio Irakin proiektuari. Horretarako aurrekontu partidetan aurreikusi ez den gastua egin beharko litzake. Espediente honi hasiera ematen dion Dekretu honen bidez, diru-laguntza emateko aurrekontuan aldaketak egitea proposatzen da. Hortaz, *0000.227.230.00.99 Adin txikikoen eskuhartze zerbitzua* partidan erabiliko ez diren 20.000 euro *0000.471.414.40.01 Dirulaguntza*. Irakin proiektua sortu berri den partidara bideratuko dira.

Hortaz, Udal honen aurtengo aurrekontuko gastu partiden artean kreditu transferentziak egitea beharrezkotzat jotzen da, ondorengo proposamenaren arabera:

Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0000.227.230.00.99 2023	KONTRATUA. ADIN GABEEN ESKUHARTZ. GG.ZZ.	60.000,00	20.000,00	40.000,00
	GUZTIRA	60.000,00	20.000,00	40.000,00

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0000.471.414.40.01 2023	DIRULAGUNTZA. IRAKIN PROIEKTUA	0,00	20.000,00	20.000,00
	GUZTIRA	0,00	20.000,00	20.000,00

* Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira

Kontuan izanda Idazkari Kontu-hartzaileak 2023ko uztailearen 13an egindako txostenak, non, besteak beste, adierazten duen aztertutako espedienteak bete egiten duela legez ezarritakoa, eta toki entitate honek ez duela gainditu 2023 ekitaldirako ezarritako erreferentziazko defizita.

Kontuan izanda proposatutako kreditu transferentziek, jatorrian eta helburuan, hasierako kredituen 100eko 25etik gorako aldakuntza metatua dakartela eta, beraz, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak 29. artikulua 3. eta 4. apartatuetan jasotakoaren arabera, Udaltzari dagokiola haiek onestea.

Horiek horrela, legez ezarritako izapideak egin eta espedientearekin batera aurkeztutako agiriak aztertu ondoren, Udaltzari, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzia modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
---------	-------	--------------------	------------	--------------------



ANOETAKO
UDALA

1 0000.227.230.00.99 2023	KONTRATUA. ADIN GABEEN ESKUHARTZ. GG.ZZ.	60.000,00	20.000,00	40.000,00
	GUZTIRA	60.000,00	20.000,00	40.000,00

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0000.471.414.40.01 2023	DIRULAGUNTZA. IRAKIN PROIEKTUA	0,00	20.000,00	20.000,00
	GUZTIRA	0,00	20.000,00	20.000,00

* Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira

BIGARRENA. Kreditu transferentzien espedientea onartzeko, ez da jarraituko aurrekontua onartzeko aurreikusitako informazio, erreklamazio, errekurtsio eta publizitate araurik, ez baitago horretarako legezko betebeharririk.

7.- 2022-2024 URTEETARAKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN ALDAKETA BEHIN BEHINEAN ONESTEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hitza eman dio Idazkari Kontu-hartzaileari eta honek azaldu du Anoetako Udalak, 2021eko abenduaren 30ean eginiko Udal-batzarrean, 2022/24 urteetarako dirulaguntzen plan estrategikoa behin behinean onartu zuela, eta behin betiko testua 2022ko apirilaren 19ko 72. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zela.

Geroztik, hirutan onartu da hura aldatzeko proposamena: lehen, 2022ko irailaren 26an egindako Osoko Bilkuran egindako proposamena, Anoetako Herri Ikastolan DBH leko HABI proiektua aurrera eramateko diru-laguntza izenduna onartzeko, baita diru-laguntzen plan estrategikoa onduko aldaketa ere egiteko; bigarrena, 2022ko urriaren 27an egindako Osoko Bilkuran egindako proposamena, Anitz Dantza Taldearen eta Su-Berri Pilota Elkartearen dirulaguntza lerroak aldatzeko, eta Anoetako Herri Ikastolaren aldeko dirulaguntza lerro berria onartzeko, sexu heziketa programa garatzeko, baita Anoetako San Joan Bataiatzailearen parrokiaren aldeko dirulaguntza lerro berria onartzeko ere; eta hirugarrena, 2023ko martxoaren 30ean egindako ohiko Osoko Bilkuran, batetik, "Gu ere bertsotan" ekimenerako dirulaguntzaren kopurua aldatzeko, eta bestetik, Alkartasuna Bar, S.L. elkarteari elektrizitateko ordainagiriak ordaintzeko laguntza ekonomiko gehigarria emateko dirulaguntza lerroa sortzeko.



Oraingoan, 2022-2024 urteetarako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aldatzeko arrazoiak aurretik ebatzitako kreditu-aldaketetan azaldutakoak dira:

1. Almitza Sega Elkarte.

Kultur dinamizatzaileak, 2023ko uztailaren 12an egindako txostenean, honako dirulaguntza lerro berria sartzeko proposamena egin zuen:

“ ...

DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAN ALMITZA SEGA ELKARTEARENTZAKO DIRU-LAGUNTZA SARTZEKO PROPOSAMENA

Diruz lagundu beharra dagoen jarduera: sega herri kirolaren sustapena Anoetan.

Almitza Sega Elkarte (G20805941) Zaldibian dago kokatuta, baina eskualdeko segalariek hartzen dute parte, horien artean anoetar batek, eta euskal herri kirol tradizionala den sega sustatzea du helburu, kirol hau nazioartean ere zabalduz. Aurten, adibidez, Esloveniara joango dira uztaila bukaeran txapelketa batean parte hartzera.

Honez gain, segarekin lotutako jarduerak antolatzen dituzte, hurrei zein helduei zuzenduak: erakustaldiak, ikastaroak etab. Beraz, elkarte bizia eta oso aktiboa da.

Elkarte hau egunean dago Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako ordainketetan, eta ez dago sartuta hori lortzeko debekuetan, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikulua 2. eta 3. ataletan aurreikusitakoetan.

Hauek horrela, 2022-24 Diru-laguntzen Plan Estrategikoan ez zegoen aurreikusita diru-laguntza ematea elkarte honi, baina proposatzen da lerro berri bat sartzea, eta 500 euroko diru-laguntza ematea urteko jardueretako gastuei aurre egiteko, eta %75a aurreratzea aldaketa onartzen denean, eta gainontzeko %25a likidazioa aurkeztu ondoren (memoria, fakturak eta Gizarte Segurantzaren zein Ogasunean egunean egotea ziurtatzen duten agiriak).

Dirulaguntza lerroa: Almitza Sega Elkarte

<i>Eskumen arloa</i>	<i>Kultura</i>
Sektore hartzaileak	Almitza Sega Elkarte
Helburuak	Almitza Sega Elkarteari laguntzea euskal kirol tradizionala den sega sustatzen eta nazioartean zabaltzen.
Lortu nahi diren ondorioak	Segaren jarduera sustatzea eta zabaltzea, erakustaldi, ikastaro eta txapelketen bidez, besteak beste.



ANOETAKO
UDALA

Egikaritze epea	Urtean zehar
Kostuak eta finantzaketa iturriak	Udalak diru-laguntza handia ematen badu ere, beste diru-iturriak ere badauzka Almitza Elkartek
Ekintza Plana	Dirulaguntza izendunei dagokien legezko tramiteak jarraituko dira: hitzarmena eta bere onarpena, dirulaguntzaren % 75a aurreratu, justifikazioa eta % 25a ordaindu
Jarraipena eta ebaluazioa	Elkartek memoria aurkeztu behar du, jardueren berri emanez. Fakturak ere aurkeztu behar ditu, hala nola balantze ekonomikoa (sarrerak eta gastuen balantzea) eta Gizarte Segurantzaren zein Ogasunean egunean dagoela ziurtatzen duten agiriak.

<i>Partida</i>	<i>Onuraduna</i>	<i>Azalpena</i>	<i>Kopurua</i>	<i>Mota</i>	<i>Indarreko planean aurreikusia</i>
	Almitza Segar Elkartea	Urteko jarduerak egiteko	500 €	Izenduna	500 €

...”.

2. Anitz dantza taldea

Kultur dinamizatzaileak, 2023ko uztailaren 12an egindako beste txosten batean, Anitz dantza taldearentzako dirulaguntza lerroa aldatzeko honako proposamen hau egin zuen:

“... ”

ANITZ DANTZA TALDEA: DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAN ALDAKETA EGITEKO PROPOSAMENA

Diruz lagundu beharra dagoen jarduera: euskal dantzen sustapena Anoetan.

Jarduera hau elkarte honek bideratzen du herrian: Anitz Dantza Taldea, G75114850 IFK zenbakiduna. Elkarte hau egunean dagoela Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako ordainketetan, eta ez dagoela sartuta hori lortzeko debekuetan, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikulua 2. eta 3. ataletan aurreikusitakoetan.

Anitz Dantza Taldeak lan handia egiten du herrian euskal kulturaren alde, eta ondare immateriala zaintzen, euskal folklore tradizionala, kasu. Talde honi esker jarraitzen du bizirik herrian euskal dantzekiko grina, eta urtero adin desberdinetako 100 pertsona inguruk hartzen dute parte talde honek bideratzen dituen dantzako klaseetan, 5 urtetik hasita eta helduen mailera arte.

Saio formal hauez gain, Anitz Dantza Taldeak bestelako jarduerak antolatzen ditu urtero: Dantzari Txiki Egunak, Anitz Eguna eta herriko festetako emanaldia, besteak beste. Gainera, parte hartzen dute Euskal Jaian, Olentzero eta Mari Domingiri egiten zaien ongi etorri ekitaldian etab.

Beraz, talde bizia eta oso aktiboa da, herri giroa suspertzeko lan handia egiten duena.

Gainera, irakasleak herrikoak izaten dira, herriko haurrak ezagutzen dituzte, eta honek asko laguntzen du konfiantzazko harremanak eraikitzen eta sendotzen. Eta transmisioa bermatzen da, normalean ikasle izan direnak gero irakasle izaten dira, eta zikloa horrela elikatzen da.

Hauek horrela, 2022-24 Diru-laguntzen Plan Estrategikoan 16.400 euroko aurrekontua aurreikusita zegoen elkarte honen 2022-23 ikasturteko jardueretako gastuei aurre egiteko.

2023-24an talde berri bat sortu da; beraz, klase saio kopurua igoko da, eta horrekin batera monitoreen gastua. Bestalde, jantzien eta bestelako materialen erosketarako ere, prezioak garestitu egin dira azken urte honetan, eta horregatik proposatzen da:

- 20.000 eurora aldatzea diru kopurua
- %75a aurreratzea aldaketa onartzen denean, eta gainontzeko %25a likidazioa aurkeztu ondoren (memoria, fakturak eta Gizarte Segurantzaren zein Ogasunean egunean egotea ziurtatzen duten agiriak).

Dirulaguntza lerroa: Anitz Dantza Taldeari

<i>Eskumen arloa</i>	<i>Kultura</i>
Sektore hartzaileak	Anitz Dantza Taldea
Helburuak	Anitz Dantza Taldeari laguntzea Dantza Eskolako saioak bideratzeko, eta urteko jardueretarako jantziak edota bestelako materiala erosteko.
Lortu nahi diren ondorioak	Euskal dantzak sustatzea herrian, eta Anitz Dantza Taldea aktibo eta dinamikoa izatea zeregin horretan.
Egikaritze epea	Urtean zehar
Kostuak eta finantzaketa iturriak	Udalak diru-laguntza handia ematen badu ere, beste diru-sarrerak ere lortzen dituzte, material salmentaren bidez.
Ekintza Plana	Dirulaguntza izendunei dagokien legezko tramiteak jarraituko dira: hitzarmena eta bere onarpena, dirulaguntzaren % 75a aurreratu, justifikazioa eta % 25a ordaindu
Jarraipena eta ebaluazioa	Elkarteak memoria aurkeztu behar du, jardueren berri emanez. Fakturak ere aurkeztu behar ditu, hala nola balantze ekonomikoa (sarrerak eta gastuen

balantzea) eta Gizarte Segurantzaren zein Ogasunean egunean dagoela ziurtatzen duten agiriak.

<i>Partida</i>	<i>Onuraduna</i>	<i>Azalpena</i>	<i>Kopurua</i>	<i>Mota</i>	<i>Indarreko planean aurreikusia</i>
1.0000.481.330.04 01 (794)	Anitz Dantza Taldea	Jantziak erosteko eta urteko jarduerak egiteko	20.000 €	Izenduna	20.000 €

...”.

3. Kuku Pilota Elkarteak

Kultur dinamizatzailleak, 2023ko uztailaren 12an egindako beste txosten batean, Kuku Pilota Elkartearentzako dirulaguntza lerroa sortzeko proposamena egin zuen:

“...

DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAN
KUKU PILOTA ELKARTEAREN ZAKO DIRU-LAGUNTZA SARTZEKO
PROPOSAMENA

Diruz lagundu beharra dagoen jarduera: Kuku Pilota Elkartearentzako ikasturteko gastuak.

Anoetako Kuku Elkarteak (G20144366) urteak daramazki Anoetan Udal Pilota Eskolako klaseak kudeatzen, beti ere udalaren ardurapean, zerbitzua Udalak eskaini izan duelako orain arte. Aldiz, 2023-24 ikasturtetik aurrera, Kuku Elkarteak bideratuko du Pilota Eskolaren zerbitzu osoa, partaideen kuotak kobratzea barne.

Hortaz, diru-laguntza beharko du hainbat gasturi aurre egiteko: pilotak, lurra markatzeko zinta berezia, partaideentzako kamisetak edota sudaderak, eta bestelakoak.

Elkarte hau egunean dago Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako ordainketetan, eta ez dago sartuta hori lortzeko debekuetan, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluan 2. eta 3. ataletan aurreikusitakoetan.

Hauek horrela, 2022-24 Diru-laguntzen Plan Estrategikoan ez zegoen aurreikusita diru-laguntza ematea elkarte honi, zerbitzua orain arte Udalak kudeatzen zuelako, baina 2023-24 ikasturtetik aurrera Kuku Elkarteak kudeatuko duenez, proposatzen da lerro berri bat sartzeko, eta 2.000 euroko diru-laguntza ematea urteko jardueretako gastuei aurre egiteko, eta %75a aurreratzea aldaketa onartzen denean, eta gainontzeko %25a likidazioa aurkeztu ondoren (memoria, fakturak eta Gizarte Segurantzaren zein Ogasunean egunean egotea ziurtatzen duten agiriak).

<i>Eskumen arloa</i>	<i>Kultura</i>
Sektore hartzaileak	Kuku Elkartea
Helburuak	Kuku Pilota Elkarteari laguntzea euskal kirol tradizionala den pilota sustatzen herriko haur eta gaztetxoek artean.
Lortu nahi diren ondorioak	Pilotaren jarduera sustatzea eta zabaltzea urtean zehar, ikastaro eta txapelketen bidez, besteak beste.
Egikaritze epea	Urtean zehar
Kostuak eta finantzaketa iturriak	Udalak diru-laguntza handia ematen badu ere, beste diru-iturriak ere saiaterik da bilatzen Kuku Pilota Elkartea.
Ekintza Plana	Dirulaguntza izendunei dagokien legezko tramiteak jarraituko dira: hitzarmena eta bere onarpena, dirulaguntzaren % 75a aurreratu, justifikazioa eta % 25a ordaindu
Jarraipena eta ebaluazioa	Elkartek memoria aurkeztu behar du, jardueren berri emanez. Fakturak ere aurkeztu behar ditu, hala nola balantze ekonomikoa (sarrerak eta gastuen balantzea) eta Gizarte Segurantzaren zein Ogasunean egunean dagoela ziurtatzen duten agiriak.

<i>Partida</i>	<i>Onuraduna</i>	<i>Azalpena</i>	<i>Kopurua</i>	<i>Mota</i>	<i>Indarreko planean aurreikusia</i>
	Kuku Elkartea	Urteko jarduerak egiteko	2.000 €	Izenduna	2.000 €

...”.

4. Anoeta udalerriko haur eta nerabeak dituzten familiei laguntza.

Gizarte Langileak, 2023ko uztailaren 13an egindako txostenean, Anoeta udalerriko haur eta nerabeak dituzten familiei bideraturiko dirulaguntza lerroa sortzeko proposamena egin zuen:

“...

Diruz lagundu beharra dagoen jarduera: Anoeta udalerriko haur eta nerabeak dituzten familiei laguntza.

Diru-laguntza honen xedea Anoetako Udalerrian bertako edo inguruko eskoletan HH, LH eta DBH ikasketak burutzen ari diren ikasleen familiei eskolako irteerarako,

eskola kirola edo eta igeriketa egiten dutenentzako diru-laguntza ematea da, herritarren artean desberdintasunik sor ez daitezen eta gizarteratzea bultzatzeko. Horregatik, Anoetako Udalak diru-laguntzak emango dizkie tokiko edo inguruko ikastetxeetan matrikulatutako ikasleen familiei, dagokien ikasturtean eta hurrengo urteetan.

2022-24 Diru-laguntzen Plan Estrategikoan ez zegoen aurreikusita diru-laguntza Anoetako herritarrei eskaintzea, beraz, lerro berri bat sartzea proposatzen da; 3000€ko diru-laguntza onartzea diru-laguntza eskaini ahal izateko.

Diru-laguntza lerroa: Anoeta udalerriko haur eta nerabeak dituzten familiei laguntza.

<i>Eskumen arloa</i>	<i>Gizarte Zerbitzuak</i>
Sektore hartzaileak	Anoetako Herri ikastolara eta inguruko ikastoletara joaten diren haur eta nerabeen familiak.
Helburuak	Beharra duten adingabeko familiei laguntzea.
Lortu nahi diren ondorioak	Baliabide ekonomiko nahikoa ez duten familietan, haurrak eta nerabeak daudenean, kirola eskola, igeriketa eta irtereetan parte hartu gabe ez geratzea.
Egikaritze epea	Urtean zehar.
Kostuak eta finantzaketa iturriak	Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi. Finantziarioa funts propioekin egiten da.
Ekintza Plana	Diru-laguntza izendunei dagokien legezko tramiteak jarraituko dira: eskaera, hitzarmena eta bere onarpena, dirulaguntzaren justifikazioa eta ordainketa.
Jarraipena eta ebaluazioa	Familiak eskaera gauzatu ahal izateko dokumentazioa aurkeztu behar dute eta diru-laguntzaren justifikazioa aurkeztu behar dute, errezibo edo ordain agirien bitartez.

<i>Partida</i>	<i>Onuraduna</i>	<i>Azalpena</i>	<i>Kopurua</i>	<i>Mota:</i>	<i>Indarreko planean aurreikusia</i>
1 0000.480. 230.00 01	Anoeta udalerriko haur eta nerabeak dituzten familiak	Beharra duten adingabeko familiei laguntza	3.000€	Izenduna	3.000€

5. IRAKIN proiektuari.

Alkateak, 2023ko uztailaren 13an egindako idatzian, IRAKIN proiektuaren alde dirulaguntza lerroa sortzeko proposamena egin zuen, besteak beste, ondorengo edukiarekin:

“ ...

LEHENA. Aurrekarietan aipatutako Obradorearen proiektua martxan jartzeko arrazoiak gaur gaurkoz erabat bat datoz indarrean gauden udal korporazioaren proiektuaren oinarriekin. Aurrekarietan ingurumenari, lehen sektorearen egoerari, ekonomia zirkularrari, tokiko merkataritzari, elikadura osasuntsuari egiten zaizkion aipamenak, Udal korporazio honek Anoetarentzat duen herri proiektuarekin erabateko lotura dute. Beraz, Obradorea martxan jarri zuten arrazoiak gaur gaurkoz bere horretan jarraitzen dutenez, proiektu honekiko erabateko konpromisoa azaltzen dut.

BIGARRENA. Herriko ekoizleen, Obradorearen kudeatzaileen eta kontsumitzaileen arteko sarea indartzeko bitartekoak jartzen jarraitu behar dugu, benetan eraginkorra izan dadin proiektua eta bere helburuak lortu ditzan.

HIRUGARRENA. Obradorean eman haurrentzat eman diren ikastaro eta bestelako ekintzek oso harrera ona izan dute haur eta gurasoengan. Ikastaro hauek elikadura osasuntsua, haurren ohitura onak, haurren ahalduntzea, haurrek ingurunearekin eta herriko ekoizleekin duten harremana eta aisi eredu parte hartzaile ez konpetitiboa bultzatzen dute. Horregatik, ikastaro hauek modu duinean eman daitezzen eta prezioagatik inor kanpoan gera ez dadin bitarte ekonomiko eta materialak jartzeko konpromisoa hartzen dut.

LAUGARRENA. Hausnarketa eta oinarri hauen gainean etorkizunean suertatu daitezken proiektuak, Obradoreakin lotutakoak edo proiektu berriak, era aktiboan bultzatu ditut interesdunekin eta herriko taldeekin elkarlanean, hala beharko balitz.

BOSTGARRENA. Obradorearen proiektua estrategikoa dela iritzita, etorkizunean suerta daitezkeen beharrak aztertuta udal baliabide ezberdinak proiektu honen mesedetan jartzea baloratuko balitz, ni ez naiz oztopo izango.

<i>Eskumen arloa</i>	<i>Alkatetza</i>
Sektore hartzaileak	IRAKIN
Helburuak	Adin guztietako eta egoera sozial guztietako anoetarrek sukaldaritza ikastaro duin baterako aukera izatea.
Lortu nahi diren ondorioak	Bertako produktuak erabiliz bertako ekoizleak bultzatzea, lehengai ekologiekin elikadura osasuntsuaz kontzientziatzea, hezkuntza arloan aisi ez konpetitiboa sustatzea, herritarren parte hartzea eta ahalduntzea bultzatzea eta bertako komertzioa bultzatzea.
Egikaritze epea	Urtean zehar
Kostuak eta finantzaketa iturriak	Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi. Finantziazioa funts propioekin egiten da.



ANOETAKO
UDALA

Ekintza Plana	Diru-laguntza izendunei dagokien legezko tramiteak jarraituko dira: eskaera, hitzarmena eta bere onarpena, dirulaguntzaren justifikazioa eta ordainketa.
Jarraipena eta ebaluazioa	Irakinek memoria aurkeztu behar du, jardueren berri emanez. Fakturak ere aurkeztu behar ditu, hala nola balantze ekonomikoa (sarrerak eta gastuen balantzea) eta Gizarte Segurantzaren zein Ogasunean egunean dagoela ziurtatzen duten agiriak.

<i>Partida</i>	<i>Onuraduna</i>	<i>Azalpena</i>	<i>Kopurua</i>	<i>Mota</i>	<i>Indarreko planean aurreikusia</i>
1.0000.471.414.40 01 (994)	IRAKIN	Orotariko ikastaroak emateko laguntza	20.000 €	Izenduna	20.000 €

...”.

Behin Idazkariak proposamenak irakurtzeaz bukatutakoan, Nuria Carbonell zinegotziak hitza hartu du eta adierazi du bere taldea ados dagoela Irakini dirulaguntza ematearekin eta obradorea sustatzearekin, baina uste duela arreta berezia jarri behar dela dirulaguntza hori emateko orduan, gainerako eragile ekonomikoekin eta, batez ere, tokiko gainerako merkatariarekin lehia desleialik eragin ez dadin. Horri alkateak erantzun dio, hain zuzen ere, zuhurtzia handiz landuko dela diruz lagundu beharreko jarduera eta dirulaguntza emateko era arautuko duen hitzarmena, lortu nahi diren interes orokorreko helburuak lortzeko eta gainerako eragile ekonomikoek kalterik ez eragiteko. Asmoa da obradorearen proiektua bultzatu zuen helburu soziala indartzea eta proiektua eraikitzeko beharrezkoa den lankidetzaren estrategikoa lortzea. Amaia Urkola zinegotziak alkateak esandakoa babestu du eta azaldu du dirulaguntzaren izaera izenduna ez datorrela bat Irakini enpresaren nortasunarekin, baizik eta Udalak sustatutako obradorearekin, gaur egun enpresa horrek kudeatutakoa.

Zalantzak argituta, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Onartzea Anitz dantza taldearen aldeko dirulaguntzen lerroaren aldaketa eta Kuku pilota Elkartearen, Almitza Segua Elkartearen, Irakini proiektuaren eta Anoeta udalerriko haur eta nerabeak dituzten familien aldeko dirulaguntzen lerroen sorrera, proposatutako eran.

BIGARRENA. 2022-2024 Diru-laguntzen Plan Estrategikoa aldatzea eta behin behinean onartzea.

HIRUGARRENA. Aurreko erabakia jendaurrean jartzea, iragarki bidez. Iragarki hori udal-iragarki-taulan eta probintziako aldizkari ofizialean jarriko da hogeita hamar egun

balioduneko epez, iragarki hori probintziako aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Halaber, interesdunen eskura jarri beharko da Udal honen egoitza elektronikoan.

LAUGARRENA. Aipatutako epean espedienteari erreklamaziorik aurkezten ez bazaio, ordura arteko behin-behineko erabakia behin betikotzat joko da, eta dagokion iragarkia probintziako aldizkari ofizialean, udal iragarki-taulan zein egoitza elektronikoan argitaratuko da.

8.- 2023KO APIRILAREN 27AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAN UDALBATZAK HARTUTAKO ERABAKIA ZUZENTZEKO PROPOSAMENA, UDAL ARKITEKTO TEKNIKOAK 2023KO EKAINAREN 1EAN EGINDAKO ZUZENKETA-TXOSTENAREN ARABERA, ANOETAKO A-14 LASARBE SEKTOREKO RA-B3 PARTZELAN 40 ETXEBIZITZA ETA GARAJEEI ESLEITUTAKO ZAIEN BEHIN BETIKO HELBIDEA ONESTEKO, CONSTRUCCIONES ABURUZA, S.L.K ESKATUTA.

2023ko apirilaren 27an egindako ohiko Osoko Bilkuran Udalbatzak ondorengo erabakia hartu zuen:

[...]

3.- ANOETAKO A-14 LASARBE SEKTOREKO RA-B3 PARTZELAN 40 ETXEBIZITZA ETA GARAJEEI ESLEITUKO ZAIEN BEHIN BETIKO HELBIDEA ONESTEKO PROPOSAMENA, CONSTRUCCIONES ABURUZA, S.L.K ESKATUTA.

Alkateak hitza eman dio Idazkariari eta horrek Construcciones Aburuza, S.L. enpresak 2023ko apirilaren 11n, 531. sarrera-erregistro zenbakiarekin, aurkeztutako eskaria azaldu du. Bertan, “Anoetako A-14 Lasarbe sektoreko RA-B3 partzelan 40 etxebizitza eta garajeri esleituko zaion behin betiko helbidea jakinaraztea” eskatzen zen.

Gai hori 2020ko irailaren 23ko Hirigintzako Batzordean jorratu zen, gai zerrendaren lehenengo puntuan, non honakoa jasotzen zen:

“... ”

Proposamena: Lasarbe 5 bezala izendatzea. (Eranskina planoan)

Orain arte inguruan egin diren eraikinak Iturtxulo izena izan dute (1,2,3,4,5,6) eta Babes Ofizialeko eraikina Lasarbe 1 da, zenbaki bakarra dago kale horretan. Inguru horrek Lasarbe izena duenez izena mantentzea erabaki da eta oraingo eraikinari 5. zenbakia jartzea aurreikusita ze eraikin egingo diren eta tartean zenbat zenbaki utzi behar diren.

Alde: 3 (2 EH BILDU + 1 EAJ)

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

...”.

Bestalde, udal Arkitekto Teknikoak, 2023ko apirilaren 18an, txostena egin du ondorengo ondorioak jasota:

“...

Hori dena kontuan hartuta Lasarbeko A-14 sektoreko RA.B3 partzelan eraikitzen ari diren 40 etxebizitza, lokalak, garajeak eta trastelekuak dituen eraikinari LASARBE 3 eta 4 helbidea ezartzea proposatzen dut, ezkaratza bati 3 zenbakia jarriaz eta besteari 4 zenbakia ondorengo krokisaren arabera (...).

...”.

Behin Idazkariak aurrekoak azaltzeaz bukatutakoan, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. *Lasarbeko A-14 sektoreko RA.B3 partzelan eraikitzen ari diren 40 etxebizitza, lokalak, garajeak eta trastelekuak dituen eraikinari LASARBE 3 eta 4 helbidea ezartzea, ezkaratza bati 3 zenbakia jarriaz eta besteari 4 zenbakia, udal Arkitekto teknikoak bere txostenean jasotako krokisaren arabera.*

BIGARRENA. *Construcciones Aburuza, S.L.ri ebazpen hau jakinaraztea.*

...].

2023ko ekainaren 1ean, aitzitik, udal Arkitekto Teknikoak zuzenketa-txostena egin zuen, honako ondorioak jasota:

“...

Hori dena kontuan hartuta Lasarbeko A-14 sektoreko RA.B3 partzelan eraikitzen ari diren 40 etxebizitza, lokalak, garajeak eta trastelekuak dituen eraikinari LASARBE 3A, 3B, 4A eta 4B helbidea ezartzea proposatzen dut.

...”.

Horiek horrela, espedientearekin batera aurkeztutako agiriak aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. *Lasarbeko A-14 sektoreko RA.B3 partzelan eraikitzen ari diren 40 etxebizitza, lokalak, garajeak eta trastelekuak dituen eraikinari LASARBE 3A, 3B, 4A eta 4B helbidea ezartzea, udal Arkitekto teknikoak 2023ko ekainaren 1eko txostenean jasotako krokisaren arabera.*

BIGARRENA. *Construcciones Aburuza, S.L.ri ebazpen hau jakinaraztea.*

9.- GIPUZKOAKO BOTIKARIEN ELKARGOAREN ETA ANOETAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legeak Gizarte Zerbitzuen sistemaren Prestazio Orokorren barruan honako hau aurreikusten du: laguntzeko jardueren bitartez, interesatuaren etxean bertan zerbitzuak edo elkarbizitza-programak jasotzea.

Bestalde, Botikarien Elkargoak bere helburuen artean honako hau du: botikari-lanbidearen jarduera herritarren osasuna bultzatzeko eta erabiltzaileei farmazia asistentzia egokia eskaintzeko izatea, eta, horretarako, gainerako erakunde publikoekin beharrezko lankidetzatresnak ezartzea.

Anoetako Udaleko Gizarte zerbitzuen Departamentuak zein Botikarien elkargoak ondo ezagutzen dituzte botikak eta farmazia-zerbitzuak eskuratzeko dauden arazoak; halaber, ondo dakite hainbat pertsonen - bere kabuz moldatzeko erabateko gaitasuna ez dutelako edo bestelako arrazoiengatik- botikak erabiltzeko eta kontrolatzeko zailtasunak dituztela. Horregatik, eta farmazia-zerbitzuak jasotzeko eta botikak erabiltzeko mugak gainditzeko xedearekin, bi erakundeek lankidetzahitzarmena sinatzea erabaki dute. Horri esker, aipatu arazoak gainditzea espero dute, baita programan parte hartuko dutenek botikak egoki erabiltzea ere.

Beraz, proposatzen den hitzarmenaren helburua Anoetako Udalaren eta Gipuzkoako Botikarien Elkargoaren artean erakundeen arteko lankidetzarako hitzarmen-markoa ezartzea da. Horrela, bi erakundeek pertsonen bizi-maila eta beharrezko arreta-mailak hobetzearen eta handitzearen alde egiten dute lan.

Proposatzen den hitzarmenak ez du inolako eragin ekonomikorik Anoetako Udalarengan eta, beraz, ez du eraginik bere aurrekontu-egonkortasunean zein finantza-iraunkortasunean.

Bestalde, lankidetzahitzarmen honen xedea ez da kontratuei dagozkien prestazioak ematea, elkarlan eta zerbitzu berri baten oinarriak arautzea baizik. Beraz, haren izaera eta araubide juridikoa urriaren 1eko 40/2015 Legearen VI. kapitulun xedatutakoari egokituko dira, eta ez, beraz, sektore publikoko kontratuen legerian aurreikusitakora. Halaber, ez du dirulaguntzarik bideratzen; beraz, ez da Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoari egokituko.

Beraz, hitzarmenaren edukiari begira, argi dago lankidetzahitzarmen arrunta dela, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen VI. kapituluan jasota dagoena, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2013 Lege Orokorrean aplikazio-eremutik kanpo dagoela.

Kontuan izanda Idazkari Kontu-hartzaileak 2023ko uztailaren 12an egindako txostena.

Horiek horrela, espedientearekin batera aurkeztutako agiriak aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Onartzea Anoetako Udalaren eta Gipuzkoako Botikarien Elkargoaren arteko lankidetzaz hitzarmena, etxez etxeko laguntza zerbitzuko erabiltzaileen eta gizarte zerbitzuek artatutako pertsonen artean botiken erabilera optimizatzeko programa garatzeko.

BIGARRENA. Konpromisoa hartzea lankidetzaz hitzarmenean jasotako betebeharrak betetzeko.

HIRUGARRENA. Alkateari ahalordea ematea hitzarmena eta horren eranskinak sinatzeko.

LAUGARRENA. Gipuzkoako Botikarien Elkargoari ebazpen hau jakinaraztea.

10.- TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEAREN ESTATUTUEN ALDAKETA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Tolosaldeko Mankomunitatearen estatutuen aldaketaren aurrekariei dagokienez, 2019ko urriaren 24an egindako bilkuran, Tolosaldeko mankomunitateko Batzarrak erabaki zuen estatutuen aldaketa jardunbideari hasiera ematea eta hori bideratzeko aholkularitza juridikoa kontratatzea.

2020ko uztailaren 13an, Batzarrak estatutuak berritzeko proiektuaren lanketa zerbitzua esleitu zuen eta, 2020ko urriaren 8an egindako bileran, erabaki zuen estatutuak berritzeko mahai teknikoa izendatzea, guztiak Batzorde Iraunkorreko kideak.

2022ko martxoaren 14an estatutuak aldatzeko proposamena aurkeztu zen Batzarrean, 2022ko azaroaren 7an hasierako onespina emanik Tolosaldeko mankomunitateko estatutuen aldaketari.

Estatutuak aldatzeko proiektua jendaurrean jarri zen hilabete batez, 2022ko azaroaren 14ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (215 zk.) eta kide diren udalen iragarki tauletan argitaratutako iragarkien bidez. Jendaurrean erakusteko izapidean hiru alegazio idatzi aurkeztu ziren: Berrobiko Udalarena, Larraulgo Udalarena eta Andoaingo Udaleko talde sozialistarena.

2023ko urtarrilaren 30ean, Batzarrak alegazio horiek ebatsi, estatutuak aldatzeko proiektua onetsi eta espedientea Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea erabaki zuen, dagokion txostena egin zezan. Gipuzkoako Foru Aldundiak aldeko txostena egin zuen, nahitaezkoa eta ez loteslea, 2023ko martxoaren 20an.

2023ko apirilaren 3an, Tolosaldeko mankomunitateko Batzarrak erabaki du Gipuzkoako Foru Aldundiak bere txostenean proposatutako aldaketa gomendioak txertatu ondoren, mankomunitateko udaletara igortzea, beren udalbatzek behin betiko onetsi ditzaten.

Estatutuak aldatzeko arrazoiei dagokienez, hiru dira: batetik, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituen apirilaren 10eko 6/2007 Foru Arauari egokitzea, bere xedapen iragankor bakarrak agindu bezala; 56. artikulua aldatzea, udalen ekarpenak kalkulatzeko erabiltzen diren irizpideak

estatutuetan islatzeko; eta genero ikuspegia txertatzea: idazketa aldetik gaztelaniazko bertsioa bere osotasunean berrikusi eta, oro har, gizonezko eta emakumezkoen berdintasuna arautzeko legeak isla izan dezan.

2023ko uztailaren 13an Idazkari Kontu-hartzaileak aldeko aldez aurreko txostena egin zuen, gaikuntza nazionala duten Toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak, 3.3 d)1 artikuluan eskatutakoa.

Azkenik, Estatutuen aldaketa onartzeko eskumena Udaltzari dagokio, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. artikulua b) eta p) atalek eta Tolosaldeko Mankomunitateko estatutuen 60. artikulua xedatutakoaren arabera. Gainera, horien aldaketa onartzeko gehiengo osoa behar da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.2 g) artikulua arabera.

Horiek horrela, espedientearekin batera aurkeztutako agiriak aztertu ondoren, Udaltzak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Tolosaldeko mankomunitatearen estatutuen aldaketa onartzea, artikuluz artikulua, genero ikuspegia txertatuz gaztelaniazko bertsioan.

Zehazki, ondorengo artikulua aldatzea onartzen da:

ARTIKULUA	ALDAKETA PROPOSAMENA	ONARTUA GEHIENGO OSOZ	EZ ONARTUA
5. artikulua	5. artikulua eranstean zaio: Hala nola, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalaz gairik erakundeak arautzen dituen apirilaren 10eko 6/2007 foru araua aplikatuko zaio.	X	
9. artikulua	Mankomunitatearen egoitza Tolosaldeko Plaza Zaharra 6 zk.an dago, Gipuzkoa. Bere egoitza elektronikoa: tolosaldekomancomunitatea.eus delarik.	X	
11. artikulua	Eransten zaio 4. Atala: Mankomunitateak bermatuko du zerbitzu berriak emateak ez diela eragingo horietara atxikitzen ez diren udalei.	X	
16. artikulua	Eransten zaio 3. Atala: 3. Mankomunitatea bere organoen osakeran emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatzen saiatuko da, non sexu bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkaritza izango duen, Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legean adierazitakoaren arabera.	X	
18. artikulua	Artikuluaren hasierari eranstean zaio: Batzarra udalerrri mankomunitate bakoitzeko ordezkaritza banak osatzen du.	X	
19. artikulua	19. artikulua eranstean zaio:	X	

	Udalerri bakoitzaren parte hartzeak eguneratuko dira mankomunitatearen organoak eratzen diren bakoitzean.		
23. artikulua	d) atala aldatzen da: d) Estatutuen aldaketan onspena	X	
25. artikulua	5. azpiatala eranstean zaio: 5. Batzorde Iraunkorrek kideak izendatzeko, hautagaiak gehiengo osoz onartu beharko dira lehen bozketan, gehiengo soilarekin bigarren bozketan, eta adostasunik ez badago, lehendakariak hautatuko ditu.	X	
46. artikulua	3. azpiataleko a) puntua aldatzen da: a) Estatutuen aldaketa proiektua	X	
55. artikulua	55. artikuluari eranstean zaio: Estatutu hauetako 11.2 atalean aurreikusitakoa betez ematen diren zerbitzu berriak, Udalen eskariz, eskatzaileek soilik ordaindu beharko dituzte. Bat baino gehiago izango balira, zenbatekoa interesaturiko Udalen artean banatuko da. Mankomunitateak bermatuko du zerbitzu berriak emateak ez diela eragingo horietara atxikitzen ez diren udalei.	X	
56. artikulua	56. artikulua 2 eta 3 atalak aldatzen dira eta 4 eta 5 atalak eranstean zaizkie 2.- Udalen ekarpenak udalerri bakoitzaren biztanle kopuruaren proportzioan eta udal bakoitzak eskatutako bilketa sistemaren arabera kalkulatu dira. Biztanle kopuruaren kalkulurako, Mankomunitateko kide diren udalerrietako erroldetan ofizialki erregistratutako biztanle-kopurua erabiliko da. Kasuan kasuko udal-idazkariak ziurtagiri bat egingo dute urtero, eta ziurtagiri horretan adieraziko dute zein den dagokion zifra, idazkari guztientzat zehazten den egun zehatzean. 3.- Zerbitzu bakoitzari dagozkion udalen ekarpenak kalkulatzeko irizpideak, erak eta epeak garatu eta zehaztuko ditu Batzarrak botoen bi hereneko gehiengoarekin, gainera gehiengo horrek, gutxienez, mankomunitateko udalen bi heren ordezkatu beharko du. 4.- Urteko aurrekontu proiektuak udalerrien urteko ekarpen finko eta aldakorrei buruzko azterlana jasoko duen eranskina baneratu du. 5.-Ez ordaintzeak arduradun den udala eskubidez gabetzea ekarriko du. Mankomunitateak ez dizkio bere zerbitzuak emango horrelako kasuan dagoen Udalari bere obligazioak betetzen ez dituen bitartean. Horretarako, Batzorde Iraunkorrek diru sarrera egin dezan errekerituko dio Udalari eta hiru hilabeteko epean hala ez badu egiten, eta ezinbesteko arrazoirik ez badu, Mankomunitateak ez dio zerbitzurik emango egun hartatik aurrera. Eskubidez gabeturiko Udalen ordezkariak ezin esku hartuko dute botazioetan, eta kasu bakoitzean beharko diren gehiengoaren kontaktetan ere ez dira kontuan hartuko. Udal horiek Batzorde Iraunkorrek partaide badira, eskubide gabe geratzearen ondorioz, Batzorde horretan dituzten eskubideak baliorik gabe geldituko zaizkie.	X	
60. artikulua	60. artikulua honela idatzita geldituko da: Estatutuen aldaketa burutzeko jarraitu beharreko	X	

	<p>prozedura ondokoa izango da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ekimena ukituko duen alderdia zehaztuz dagokio: Lehendakartzari edo Batzarreko legezko ordezkari kopuruaren herenari edo Batzorde iraunkorrari edo guztira zuzenbideko biztanleria 25.000 biztanle edo gehiagokoa daukaten bost Udali gutxienez. - Aldaketa proiektua egitea Batzorde Iraunkorrari dagokio. Hala ere, Mankomunitatea osatzen duten udalerrien erdiak ere ekin diezaioke proiektua egiteari. - Batzarrak estatutuen proiektua onartuko du 46.3 atalean aurreikusitako gehiengoz. - Proiektua onartu ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta dagokion udaletako iragarki oholean jarriko da ikusgai hilabeteko epean. - Behin publikaturik Foru Aldundira bidaliko da honek informa dezan. Hilabeteko epean honen inguruko iritzirik ematen ez baldin badu, hau aldekotzat hartuko da. - Estatutuak Udal guztietako Udalbatzek onetsiko dituzte behin betiko, kidetariko legezko kopuruaren gehiengoak aldeko botoa emanik. - Erabakia onartuta, estatutuen testu osoa, bere aldaketekin, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da. 		
61. artikulua	61. Artikulua ezabatzen da.	X	
62. artikulua	Eransten zaio 6. Atala: Ondoren estatutuen aldaketa eman beharko da.	X	
63. artikulua	63. artikuluari eransten zaio: Behin hau eginda, 6/2007 foru arauaren 10.3 artikulua arabera banatzeak, estatutuak aldatzeko ezarritako arauak betetzea ekarriko du.	X	
64. artikulua	64. artikuluari eransten zaio: Desegiteko, 6/2007 foru arauaren 12 artikulua arabera, estatutuak aldatzeko ezarritako arauak bete beharko dira.	X	
65. artikuluari	1. atalari eransten zaio: Akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean publikatu beharko da.	X	
Bigarren xedapen gehigarria	3. atala eransten zaio: Ondoren estatutuen aldaketa eman beharko da.	X	
Zazpigarren xedapen gehigarria	Zazpigarren xedapen gehigarriari eransten zaio: Hortaz gain, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udalez Gaiak Erakundeak Arazten dituen apirilaren 10eko 6/2007 foru araua ere aplikatuko da.	X	

BIGARRENA. Tolosaldeko mankomunitateari bidaltzea estatutuen aldaketa onartzen duen osoko bilkuraren erabakiaren ziurtagiria.

II. GOBERNU ORGANOEEN KONTROLA ETA FISKALIZAZIOA

ALKATETZA

11.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Alkateak 2023ko ekainaren 17tik 2023ko uztailaren 13ra bitarte, biak barne, emandako ebazpenen berri eman da eta zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

ANTOLAKUNTZA

12.- KONTROL-ORGANOAK EGINDAKO ERAGOZPENEZKO TXOSTENEN AURKA ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 70.6 artikuluan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauaren 12. artikuluan xedatutakoa jarraituz, kontrol-organoak lehengo Osoko Bilkuratik egindako eragozpen-txostenen aurka Alkateak emandako ebazpenen berri ematen zaio Korporazioari (aurreko puntuan berri eman direnen artekoak):

352. DEKRETUA	
2023.06.22	
Hartzekodunak	IFZ / IFK
MADDI SARASOLA EIZMENDI	44332401Q
ADO	Zenbatekoa
“P” fasea	2.323,89 €
Kontzeptua	
Maddi Sarasola Eizmendiren nomina: 2023ko ekaineko aparteko ordainsaria	

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaileak 2023ko ekainaren 22an eragozpenezko txostena egin zuen adieraziz, besteak beste: “I. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua garatzen duen eta programa-kontratuen luzapena ahalbidetzen duen Funtzio Publikoaren Lege aplikagarriarik ezean, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 10.1.c) artikuluan jasotako luzapen aukera ez da aplikagarria. II. Programa-kontratuen gehieneko iraupena hiru urtekoa da. III. Maddi Sarasola Eizmendiren programa-kontratuak aurreko epea gainditu du eta, beraz, gaurko egunetik aurrerako egoera eta horretarako Alkateak egindako eginbideak erabat deusezak dira. IV. Gehieneko iraupen-epea ez betetzeagatik ordaindu beharreko kalte-ordainaren gaineko erantzukizuna Alkatearena da; izan ere, Alkatea da, jakinda araudia guztiz urratzen duela, Maddi Sarasola Eizmendiren kontratua luzatzea erabaki duena”. Hori dela eta, 32/2018 Foru Dekretuak, abenduaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duenak eta Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duenak, bere 12. artikuluan xedatutakoa –zehazki, hirugarren paragraforaren b. eta c. letretan–, 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotakoarekin batera, Idazkari Kontu-hartzaile honek gastu-espeditentearen izapidetzea eteten duen eragozpena jartzen du, adierazitako akatsa zuzendu arte.

353. DEKRETUA

2023.06.23

Hartzekodunak	IFZ / IFK
JOSE MIGUEL OTAÑO GARCARENENA	72445464H
ADO	Zenbatekoa
“P” fasea	1.968,19 €

Kontzeptua

Jose Miguel Otaño Garcarenaren nomina: 2023ko ekaineko aparteko ordainsaria

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaitzak 2023ko ekainaren 22an eragozpeneko txostena egin zuela adieraziz, bestek beste: gaur egun Jose Miguel Otaño Garcarenak duen kontratuak ez dituela betetzen programa bitarteko izendapen batek bete behar dituen betekizunak, barneratzen dituen ekintzak ezin direlako aldi batekoak, baizik eta ohiko ekintzak eta eginkizunak, 2019tik (gutxienez) kontratatzen eta ematen etorri direnak; Jose Miguel Otaño Garcarena urteetan zehar kontratatzeko “programa” baten barruan ezkatututako legez kontrako kontratazio kateatuak direla eta, hortaz, Anoetako Udala lege-iruzurra egiten ari dela; Jose Miguel Otaño Garcarenak betetze dituen eginkizunak egiturazkoak direla eta, beraz, horiek berriro ere kontratatu nahi balira, Udalak lanpostua sortu beharko lukeela (lanpostuen zerrendan eta plantilla organikoan), eta ondoren lan-eskaintza publikoaren bidez dagokion deialdia egin.

354. DEKRETUA

2023.06.26

Hartzekodunak	IFZ / IFK	
GURE ABOKATUAK, S.L.P.	B01553387	
Prozedura	Zenbatekoa (BEZ barne)	
Faktura kontratu txikietan onartzea	4.827,90 €	
Faktura zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
62/2023	2023.05.25	4.827,90 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaitzak 2023ko ekainaren 26an egindako eragozpeneko txostena.

Lanpostuen balorazioa egiteko zerbitzua 2020ko irailaren 21ean esleitu zitzaion Gure Abokatuak, S.L.P. enpresari. Orduan, txosten hau egiten ari den Idazkari Kontu-hartzailea ez zegoen lanean Anoetako Udalean eta, beraz, ez zuen horren gaineko fiskalizaziorik egin.

Kontratu txikia prezio unitarioen arabera esleitu zen, 5.600 € + BEZ eko atalasea aurreikusiz. Horri buruz, SPKLLk ez du inolako eragozpenik jartzen kontratu txikiei dagokionez, modu orokorrean ahalbidetuz 102.4 artikuluan. Hala ere, hogeita hamahirugarren xedapen gehigarriak xedatzen duenez, aurrekontu mugatzailea duten herri-administrazioek izapidetzen dituzten zerbitzu-kontratuetan, baldin eta enpresa zerbitzua elkarren segidan eta unitateko prezioan betetzera behartzen bada, kontratuaren xedean sartutako prestazioen guztizko kopurua zehatz-mehatz zehaztu gabe kontratua egitean, Administrazioaren premien mende daudenez, gehieneko aurrekontu bat onartu beharko da. Kontratuaren indarraldian benetako premiak hasieran aurreikusitakoak baino handiagoak badira, dagokion aldaketa izapidetu beharko da. Kasu honetan, dekretuan jasotako atalasea gainditu egin da eta ez da kontratuaren aldaketarik tramitatu.

Bestalde, kontratu honek zuzenean urratzen du SPKLren 29.8 artikuluan jasotakoa (*Los contratos menores definidos en el apartado primero del artículo 118 no podrán tener una duración superior a un año ni ser objeto de prórroga*). Udal honek bazuen lanpostuak baloratzeko prozesuaren aurrekari bat, urtebete baino gehiago iraun zuena. Beraz, jakina bazen prozesu horrek, ziurrenik, kontratu txikiaren gehieneko denbora-muga gaindi zezakeela, kontuan hartuta, gainera, balorazio prozesu batek fase jakin batzuk dituela zerbitzua ematen duen enpresaren mende ez daudenak, baizik eta kontratua egiten duen erakundearen eta haren langileen mende (negoziatio-fasea, alegazio-fasea...). Horregatik, SPKLren 29.8 artikuluan ezarritako denbora-mugaren arabera, debekatuta legoke halako ezaugarriak dituen zerbitzu bat kontratu txikiaren bidez esleitzea, eta, ondorioz, prozedura ireki edo murriztuaren bidez esleitu beharko litzateke nahitaez. Izan ere, SPKLren 131.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, *"Esleipena egiteko, kalitate-prezio erlazio onenaren printzipioan oinarritutako hainbat*

esleipen-irizpide erabiliko dira normalean, eta prozedura irekia edo murriztua erabiliko da, IV. eranskineko zerbitzu bereziak emateko kontratuak izan ezik, azken horiek azken prozedura horren bidez esleituko baitira".

Gainera, "Legez ezarritako prozedura erabat alde batera utzita emandako" kontratuak erabat nuloak dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1.e) artikulua eta SPKLren 39.1. artikulua araberak.

Ondorioz, goian adierazitako fakturaren ordainketa ez da oinarritzen gaur egun indarrean dagoen Sektore Publikoko legedian, ez kontratu txikiei buruzko otsailaren 28ko 1/2019 Jarraibidea argitaratzen duen Kontratazioa Arautzeko eta Ikuskatzeko Bulego Independentearen (OIREsCon) 2019ko martxoaren 6ko Ebazpenean, ezta Anoetako Udaleko kontratu txikiak arautzen dituen 1/2021 Jarraibidean ere, eta horietan jasotakoaren kontrakoa da; beraz, ez onargarria. Anoetako Udalak adierazitako zerbitzua prozedura irekiaren edo murriztuaren bidez esleitu behar zuen bere momentuan, beti ere kontratuen ezaugarrien, iraupenaren edota prezioaren arabera, oraingo honetan egin duen bezala.

Hortaz, argi dago publikitate- eta lehia-printzipioak betetzen direla bermatzeko beharrezko lizitazio-prozedurarik izan gabe kontratatu den zerbitzua dela, sektore publikoko kontratuen gaineko araudia urratzen duena, eta kontuan izanda 32/2018 Foru Dekretuak, abenduaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duenak eta Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duenak, bere 12. artikuluan xedatutakoa –zehazki, bigarren paragrafoan eta hirugarren paragrafoaren b. eta c. letretan–, 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotakoarekin batera, Idazkari-kontuhartzaile honek gastu-espedientearen izapidetzea eteten duen eragozpena jartzen du, adierazitako akatsa zuzendu arte.

355. DEKRETUA

2023.06.26

Hartzekodunak	IFZ / IFK
EGOITZ JAUREGI ITURRIOZ	72507188X
ME	Zenbatekoa
623-2023	169,48 €

Kontzeptua

Udalak Bake-epaitegiko idazkariari ordaindutako ordainsari osagarria

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzailtzak 2023ko ekainaren 26an egindako eragozpenezko txostena.

Bake-epaitegiko idazkari funtzioak betetzen dituen pertsona ez da udal-funtzionario bat; beraz, Estatuko Administrazioak kargua betetzeagatik ematen duen ordainsaria jasotzeko eskubidea baino ez du, eta Udalak ezin dio aparteko ordainsaririk ordaindu, ez baita udal-administrazioan integratzen.

360. DEKRETUA

2023.06.28

Hartzekodunak	IFZ / IFK
JOSE MIGUEL OTAÑO GARCARENENA	72445464H
ADO	Zenbatekoa
"P" fasea	1.968,19 €

Kontzeptua

Jose Miguel Otaño Garcarenaren nomina: 2023ko ekaineko ordainsaria

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzailtzak 2023ko ekainaren 28an eragozpenezko txostena egin zuela adieraziz, besteak beste: gaur egun Jose Miguel Otaño Garcarenak duen kontratuak ez dituela betetzen programa bitarteko izendapen batek bete behar dituen betekizunak, barneratzen dituen ekintzak ezin direlako aldi batekoak, baizik eta ohiko ekintzak eta eginkizunak, 2019tik (gutxienez) kontratatzen eta ematen etorri direnak; Jose Miguel Otaño Garcarenena urteetan zehar kontratatze "programa" baten barruan ezkatututako legez kontrako kontratazio kateatuak direla eta, hortaz, Anoetako Udala lege-iruzurra egiten ari dela; Jose Miguel Otaño Garcarenak betetze dituen eginkizunak egiturazkoak direla eta, beraz, horiek berriro ere kontratatu nahi balira, Udalak lanpostua sortu

beharko lukeela (lanpostuen zerrendan eta plantilla organikoan), eta ondoren lan-eskaintza publikoaren bidez dagokion deialdia egin.

361. DEKRETUA

2023.06.28

Hartzekodunak	IFZ / IFK
MADDI SARASOLA EIZMENDI	44332401Q
ADO	Zenbatekoa
“P” fasea	2.323,89 €

Kontzeptua

Maddi Sarasola Eizmendiren nomina: 2023ko ekaineko ordainsaria

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzailetzak 2023ko ekainaren 28an eragozpenezko txostena egin zuen adieraziz, besteak beste: “I. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua garatzen duen eta programa-kontratuen luzapena ahalbidetzen duen Funtzio Publikoaren Lege aplikagarriak ezean, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 10.1.c) artikuluan jasotako luzapen aukera ez da aplikagarria. II. Programa-kontratuen gehieneko iraupena hiru urtekoa da. III. Maddi Sarasola Eizmendiren programa-kontratuak aurreko epea gainditu du eta, beraz, gaurko egunetik aurrerako egoera eta horretarako Alkateak egindako eginbideak erabat deusezak dira. IV. Gehieneko iraupen-epea ez betetzeagatik ordaindu beharreko kalte-ordainaren gaineko erantzukizuna Alkatearena da; izan ere, Alkatea da, jakinda araudia guztiz urratzen duela, Maddi Sarasola Eizmendiren kontratua luzatzea erabaki duena”. Hori dela eta, 32/2018 Foru Dekretuak, abenduaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duenak eta Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duenak, bere 12. artikuluan xedatutakoa –zehazki, hirugarren paragrafoaren b. eta c. letretan–, 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotakoarekin batera, Idazkari Kontu-hartzaile honek gastu-espedientearen izapidetzea eteten duen eragozpena jartzen du, adierazitako akatsa zuzendu arte.

364. DEKRETUA

2023.07.03

Hartzekodunak	IFZ / IFK
SARENET, SAU	A48714489

Prozedura

Faktura kontratu txikietan onartzea

Kontzeptua	Faktura	Zenbatekoa (BEZ barne)
Telefono zenbakien eramangarritasuna	P23042272	97,31 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzailetzak 2023ko uztailaren 3an egindako eragozpenezko txostena.

Eragozpenak:

- Orain arte Sarennet, S.A.U. enpresak helarazitako fakturretan “telefono zenbakien eramangarritasuna” kontzeptua jasotzen zen; 2023ko lehenengo fakturan kontzeptuz aldatu da, “Serbidorearen segurtasun kopien mantenua” kontzeptua erabilita. Nahiz eta kontzeptua desberdina izan, zerbitzuak bera izaten jarraitzen du, zenbateko berberetatik.

- Ordainketa-agindua nuloa da, gastu horri estaldura ematen dion kontratazio-prozedura ez delako legearen araberakoa;

- Udaleko telefonozko komunikazioak eta, horren barne, telefono zenbakien eramangarritasuna, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kontratazio Zentralaren bidez kontratatua dago;

- Goian adierazitako zerbitzu-kontratua ezin da kontratu txiki bidez esleitu, segidako traktuzko prestazio errepikaria delako;

- Gainera, 2021eko kontratu txikia ez da SARENET, S.A.U. enpresaren alde eta xede berdinerako (telefono zenbakien eramangarritasuna) egiten den lehena, baizik eta lehenagoko beste batzuk ere badaudela: 2020ko maiatzaren 21eko dekretua, 2019ko otsailaren 6koa eta 2018ko martxoaren 8koa.

365. DEKRETUA

2023.07.03

Hartzekodunak	IFZ / IFK
TOLOMENDI Tolosaldeko Landa Garapen Elkartea	G20326237

Prozedura

Faktura kontratu txikietan onartzea

Kontzeptua	Faktura	Zenbatekoa (BEZ barne)
IKT dinamizazio eta aholkularitza zerbitzua.	F-45	2.023,80 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzailetak 2023ko uztailaren 3an egindako eragozpeneko txostena.

Eragozpenak:

- Kontratu txikiek ezin dute urtebeteko iraupena gainditu, eta ezin dira erabili errepikatzen diren prestazioak kontratatzeko. Dinamizazio eta aholkularitza lana lizitazio publikora atera beharko litzateke.
- Ez dago fakturari estaldura juridikorik ematen dion dokumenturik, ezta espedienterik ere. Tolomendirekin formalizatutako kontratua (legez kanpokoa, ondoren azalduko denaren arabera) 2021eko abenduaren 31n amaitu zen; horrezkeroztik Anoetako Udalak Tolomendi enpresaren zerbitzua jasotzen jarraitu du, inolako estaldura juridikorik gabe.
- Urtez urte enpresa berarekin kontratatu den zerbitzua da, publizitate- eta lehia-printzipioak betetzen direla bermatzeko beharrezko lizitazio-prozedurarik izan gabe.
- Anoetako Udalak kontratazio publikoa arautzen duen legedia eta oinarriko printzipioak urratu ditu, goian adierazitako gastua ez baita oinarritzen gaur egun indarrean dagoen Sektore Publikoko legedian, ez kontratu txikiei buruzko otsailaren 28ko 1/2019 Jarraibidea argitaratzen duen Kontratazioa Arautzeko eta Ikuskatzeko Bulego Independentearen (OIREsCon) 2019ko martxoaren 6ko Ebazpenean, ezta Anoetako Udaleko kontratu txikiak arautzen dituen 1/2021 Jarraibidean ere, eta horietan jasotakoaren kontrakoa da; beraz, ez onargarria.
- Anoetako Udalak IKT dinamizazio eta aholkularitza zerbitzuak prozedura irekiaren edo murriztuaren bidez esleitu behar izango litzuzke, beti ere kontratuen ezaugarrien, iraupenaren edota prezioaren arabera.
- Kontraturik ez dagoenez, eta, beraz, kontratuaren prezioa eguneratzeko formularik ez dagoenez, ezin da inola ere ordaindu zerbitzuak ematen dituen pertsonaren soldata-igoeragatiko gastuak.

371. DEKRETUA

2023.07.05

Hartzekodunak	IFZ / IFK
ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA	A20145496

Prozedura

Kontratu txikia

Aurrekontu zenbakia	Aurrekontu zenbakia	Zenbatekoa (BEZ barne)
Uztaileko Berriak Berri maketatzeko eta inprimatzeko zerbitzuagatik	53995	1.222,00 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzailetak 2023ko uztailaren 5ean egindako eragozpeneko txostena.

Berriak Berri udal aldzakaria maketatzeko eta inprimatzeko zerbitzu-kontratua gutxienez 2018tik kontratatzen

etorri da eta, gainera, enpresa berarekin, hainbat kontratu txiki kateatuz. Hortaz, argi dago Anoetako Udalak kontratazio publikoa arautzen duen legedia eta oinarritzko printzipioak urratu dituela; izan ere, urtez urte enpresa berarekin kontratatu du hornidura berdina, kontratu txikien berezkoa den zuzeneko esleipena erabiliz, eta publizitate- eta lehia-printzipioak betetzen direla bermatzeko beharrezko lizitazio-prozedurarik izan gabe. Berriro gogorarazten da SPKLren 29.8 artikuluan jasotakoa (“*Los contratos menores definidos en el apartado primero del artículo 118 no podrán tener una duración superior a un año ni ser objeto de prórroga*”), baita Kontratazio Publikoaren Aholku-Batzordeak 2020ko martxoaren 5ean emandako 1/2020 Gomendioaren c) letran jasotakoa ere (“*Gauzak horrela, segidako traktuko kontratuak, edo guztira hamabi hilabete baino gehiagoko iraupena duten aldizkako errepikapeneko kontratuak, nahiz eta batzuetan zenbatekoa oso txikikoak izan, ez dira kontratu txikitzat hartuko segidako aurrekontu-ekitaldietan xede berarekin esleituko badiera ere*”).

Gainera, kontratuaren espedientean ez da justifikatzen kontratuarekin ase beharreko beharra, ezta baliabide propio nahikorik ez izatea ere. Horrek guztiak urratzen du bai SPKLAN bai 1/2021 Jarraibidean xedatutakoa.

Ondorioz, goian adierazitako kontratazio-proposamena ez da oinarritzen gaur egun indarrean dagoen Sektore Publikoko legedian, ez kontratu txikiei buruzko otsailaren 28ko 1/2019 Jarraibidea argitaratzen duen Kontratazioa Arautzeko eta Ikuskatzeko Bulego Independentearen (OIRESCon) 2019ko martxoaren 6ko Ebazpenean, ezta Anoetako Udaleko kontratu txikiak arautzen dituen 1/2021 Jarraibidean ere, eta horietan jasotakoaren kontrakoa da; beraz, ez onargarria. Anoetako Udalak urteroko Berriak Berri udal aldizkaria maketatzeko eta inprimatzeko zerbitzu-kontratuaren prozedura irekiaren edo murriztuaren bidez esleitu beharko luke, beti ere kontratuen ezaugarrien, iraupenaren edota prezioaren arabera.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira, galderarik egin gabe.

MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK

13.- “HIZKUNTZA ESKUBIDEEN AURKAKO EPAIAREN AURREAN” MOZIOA, Anoetako EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutakoa, onesteko proposamena.

Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2598/1986 Errege Dekretuaren 91.4 artikuluaekin bat etorritik, gai-zerrendako gaien azterketa amaituta, eta galdera-erreguen txandara igaro aurretik, lehendakariak galdetu du ea talde politikoren batek, premiazko arrazoiak direla medio, Osoko Bilkuraren esku utzi nahi duen deialdiarekin batera doan gai-zerrendan sartzen ez den eta galde-eskeen puntuan sartzen ez den gairen bat.

Anoetako EAJ-PNV udal taldeak “Hizkuntza eskubideen aurkako epaiaren aurrean” mozioa aurkeztu du, gaurko egunean 1005. sarrera-erregistro zenbakiarekin udaleko erregistroan sartutakoa.

Mozioa Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2598/1986 Errege Dekretuaren 97.3 artikulua araberakoa da, hau da, Udaltzari zuzenean jakinarazten zaion proposamena.

Horiek horrela, 2598/1986 Errege Dekretuaren 91.4 artikulua bigarren lerrokadan jasotako prozedura jarraitu da eta Udaltzak, aho batez, mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea erabaki du, arau beraren 93. eta hurrengo artikuluetan jasotako izapidetzea jarraituz.



EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutako “Hizkuntza eskubideen aurkako epaiaren aurrean” mozioak honako hitzez hitzezko testua du:

“... ”.

Euskalgintzako eragileekin batera Anoetako udaleko hautetsiok, zera adierazi nahi dugu:

Espainiako Auzitegi Konstituzionalak Udal Legearen aurka, udalei euskara hutsez aritzeko aukera ezetsiz, emandako epaiak eragin digun kezka larriak ekarri gaitu idatzi hau aurkeztea.

Kezkagarria eta larria iruditzen zaigu sententzia euskararen normalizazio eta bizi berritze prozesuari oztopoa jartzea delako, helburu horren alde udaletatik bideratzen diren hizkuntza-politikak guztiz mugatzen baititu. Bide batez esan, herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatzen dituzten hizkuntza-politikak direla atzera bota diren horiek, ezetsi den Udal Legearen 6.2 artikulua berariaz jasotzen baitu berme hori.

Finean, euskara eta euskal hiztunak mespretxatzen ditu epai honek, eta euskarak normalizazio eta biziberritze bidean etorkizunera begira dituen desafio handiei aurre egiteko moduko hizkuntza-politikak indarrean jartzea eragozten du.

Eusko Legebiltzarrak kontsentsu zabalez onartu zuen orain baliogabetutako Udal Legea. Era berean, azken Inkesta Soziolinguistikoak argi erakutsi du gizartearen gehiengo zabal batek babesten dituela euskararen normalizazioa helburu duten politikak. Beraz, epai hori euskararen bizi berritzearen aurkakoa ez ezik adostasun sozial handi baten kontrakoa ere bada. Azken batean, herritarren eta udalen erabakimena jartzen ditu auzitan. Erabakimen horren defentsan hona hemen ehunka alkate eta udal ordezkariaren presentzia.

Uste dugu epai hau oldarraldi judizial zabalago baten parte dela, hizkuntza gutxituak jomugan dituen olatu erreakzionario batean kokatzen dela. Epai honen ondoren, salaketa are eta irmoago egiten dugu: oldarraldiaren aurka, baina, batez ere, euskararen normalizazio eta biziberritzearen alde.

... ”.

Behin proposamena aurkeztuta, Udalbatzak, aho batez, EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutako “Hizkuntza eskubideen aurkako epaiaren aurrean” mozioa onartu du.

Azkenik, Alkateak interesa agertu du mozioan jasotako ekimenarekiko eta berau gauzatzeko beharrezkoak diren mekanismoak sustatzearekiko.

Ez dago galde erregurik.

GALDE-ERREGUAK

14.- GALDE-ERREGUAK.



Ez dago galde erregurik.

Eta aztertzeko gai gehiago ez denez egon, Alkate-lehendakariak, Udalbatzara bertaratu direnei eskerrak emanaz, batzarraldia amaitutzat eman du akta honen goialdean adierazitako eguneko arratsaldeko 19:09tan. Idazkari naizen honek akta hau egin eta bertan jasotako guztia ziurtatzen dut.

Idazkari Kontu-hartzailea

Erika Sagarzazu Camino